

**2991/2025 EBAZPENA, abenduaren 11koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Urologia (Patologia Endourologikoa) Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

**AURREKARIAK:**

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen urriaren 17ko 2540/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Urologia (Patologia Endourologikoa) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko azaroaren 5eko EHAA 213 zk. eta 2025eko azaroaren 14ko BOE 274 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko abenduaren 5ean amaitu zen.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK:**

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Urologia (Patologia Endourologikoa) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko abenduaren 11a



EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI  
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES  
GERENTZIA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,

María Luz Marqués González

ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI.

UROLOGIA (PATOLOGIA ENDOUROLOGIKOA)  
ATAL SANITARIOKO BURUA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. Victor Crespo Atin jn.

Baztertuak:

Inor ez